

**2023KO EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO AURREKONTU
OROKORREN PROIEKTUA**

**PROYECTO DE PRESUPUESTOS
GENERALES DE LA COMUNIDAD
AUTÓNOMA DE EUSKADI 2023**



**AZALPEN-MEMORIA
MEMORIA EXPLICATIVA**

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**2023KO EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO AURREKONTU
OROKORREN PROIEKTUA**

**PROYECTO DE PRESUPUESTOS
GENERALES DE LA COMUNIDAD
AUTÓNOMA DE EUSKADI 2023**



Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca General del Gobierno Vasco:
<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitaraldia / Edición: 1.a, 2022ko urria / 1a, octubre 2022

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco

Ekonomia eta Ogasun Saila / Departamento de Economía y Hacienda

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea / Edita: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Aurkibidea / Índice :

I. EKONOMIA-ETA AURREKONTU-POLITIKAREN INGURUKO ORIENTAZIOAK <i>ORIENTACIONES DE POLÍTICA ECONÓMICA Y PRESUPUESTARIA</i>	5
II. POLITIKA PUBLIKOAK <i>POLÍTICAS PÚBLICAS</i>	22
ADMINISTRAZIO OROKORRAREN AURREKONTUEN LABURPENAK <i>RESÚMENES DE LOS PRESUPUESTOS DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL</i>	98
ADMINISTRAZIO OROKORRAREN, ORGANISMO AUTONOMOEN ETA EAE-KO SEKTORE PUBLIKOKO PARTZUERGOEN AURREKONTU BATERATUEN LABURPENAK <i>RESÚMENES DE LOS PRESUPUESTOS CONSOLIDADOS DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL, DE LOS ORGANISMOS AUTÓNOMOS Y DE LOS CONSORCIOS DEL SECTOR PÚBLICO DE LA CAE</i>	105
EMPRESA ETA FUNDAZIO-SEKTORE PUBLIKOEN (ZUZENBIDE PRIBATUKO ENTE PUBLIKOAK, SOZIETATE ETA FUNDAZIO PUBLIKOAK) AURREKONTU BATERATUEN LABURPENAK <i>RESÚMENES DE LOS PRESUPUESTOS CONSOLIDADOS DEL SECTOR PÚBLICO EMPRESARIAL Y FUNDACIONAL (ENTES PÚBLICOS DE DERECHO PRIVADO, SOCIEDADES Y FUNDACIONES PÚBLICAS)</i>	109
III, ADMINISTRAZIO OROKORRAREN AURREKONTU-SALDOAREN ETA KONTABILITATE NAZIONALAREN SALDOAREN ARTEKO BALIOKIDETASUNA, EGONKORTASUN-HELBURUAK <i>EQUIVALENCIA ENTRE EL SALDO DE PRESUPUESTO DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL Y EL SALDO DE CONTABILIDAD NACIONAL. OBJETIVOS DE ESTABILIDAD</i>	119
IV. LEGE-PROIEKTUAREN TESTU ARTIKULATUARI BURUZKO IRUZKINAK <i>COMENTARIOS AL TEXTO ARTICULADO DEL PROYECTO DE LEY</i>	127
V. EAE-KO SEKTORE PUBLIKOKO ENTITATEEN ZERRENDA <i>RELACIÓN DE ENTIDADES DEL SECTOR PÚBLICO DE LA CAE</i>	144
VI. EAEKO SEKTORE PUBLIKORAKO AURREKONTU-EGITURAK <i>ESTRUCTURAS PRESUPUESTARIAS PARA EL SECTOR PÚBLICO DE LA CAE</i>	147
EGITURA ORGANIKOEN ZERRENDA <i>RELACIÓN DE ESTRUCTURAS ORGÁNICAS</i>	148
EGITURA EKONOMIKOEN ZERRENDA: GASTUA <i>RELACIÓN DE ESTRUCTURAS ECONÓMICAS-GASTO</i>	162
EGITURA EKONOMIKOEN ZERRENDA: DIRU-SARRERA <i>RELACIÓN DE ESTRUCTURAS ECONÓMICAS-INGRESO</i>	169
EGITURA FUNZIONALEN ZERRENDA <i>RELACIÓN DE ESTRUCTURAS FUNCIONALES</i>	176

**I. EKONOMIA-ETA AURREKONTU-POLITIKAREN INGURUKO
ORIENTAZIOAK**
ORIENTACIONES DE POLÍTICA ECONÓMICA Y PRESUPUESTARIA

**POLITIKA EKONOMIKOA ETA AURREKONTU
POLITIKA: TESTUINGURUA ETA
ORIENTABIDEAK**

**1. 2023ko aurrekontua testuinguruan kokatzeko
egoera ekonomikoa**

2023rako aurrekontuak ziurgabetasun handiko agertoki batean kokatzen dira, Ukrainako gerraren ondorioek eta inflazio handiak eraginda. Aurtengo bigarren hiruhilekoan zehar, hainbat shockek astindu dute pandemiak jadanik ahuldu zuen munduko ekonomia. Lehenik eta behin, aurreikusitakoa baino inflazio handiagoa hedatu zen mundu osora. Ekonomia askotan, 2022ko lehen erdian inflazioa altuena izan da 80ko hamarkadatik, batez ere AEBetan eta Europako ekonomia nagusietan, eta finantzaziorako baldintzen gogortzea eragin du. Bigarrenik, aurreikusitakoa baino motelte ekonomiko handiagoa Txinan, covid-19aren agerraldien eta konfinamenduen ondorioz, bai eta higiezin merkatuaren ahuleziaren ondorioz ere. Eta hirugarrenik, Ukrainan bizi den gerra, hazkundera oztopatzen eta prezioen gaineko presio gehigarri bat egiten ari baita, batez ere elikagaien eta energiaren kasuan, eta enpresen eta familien konfiantzan eragiten ari baita.

Lan merkatuaren baldintza onak, herrialde askotan 20 urteko langabezia tasa txikiena jaso baita, soldatak gorantz bultzatzen ari dira, eta erosteko ahalmenaren eta hazkunde galera arintzen laguntzen. Hala eta guztiz ere, horrek ere eragiten du inflazioa eremu askotara zabaltzea. Orobat, banku zentral nagusien moneta politika gogortzeak gero eta eragin handiagoa duenez, inflazioa aurtengo hirugarren hiruhilekoan iritsiko dela bere puntu gorenera aurreikusten da, baina herrialde gehienetan laugarren hiruhilekoan eta 2023an zehar egingo duela behera espero da. Hala ere, 2023an urteko inflazioa banku zentralen helburuen gainetik kokatuko da ia herrialde guztietan.

Horrela, badirudi bilakaera ekonomikoak hazkunde ekonomiko gutxiko eta inflazio handiko aldi batera garamatzala, 2023an bereziki nabarmena izango dena. Horren ondorioz, aurreikuspenak egiten dituzten erakunde ofizial nagusiek berrikuspen garrantzitsuak egin dituzte. Zehatzago esanda, ELGAK, iraileko txostenean, 2022ko munduko jardura ekonomikoa %3,0an mantendu du, eta sei hamarren murriztu ditu, %2,2raino, 2023rako hazkunde aurreikuspenak.

Zehazki, euroaren eremua %3,1 haziko da 2022an, aurrez aurreikusitakoa baino bost hamarren gehiago, baina erritmoa %0,3raino murriztuko da 2023an. Erregaiaren eskasiak, gasarenak bereziki, 1,3 puntu murriztu dezake euroguneko hazkundera. Horri gehitu behar zaizkio inflazioaren krisia kontrolatzeko interes tasen igoerak, pandemiaren okerrenaren ondoren ekonomia berriz irekitzeko eragindako susperraldia lausotzen ari baitira. Europako Banku Zentralak, iraileko proiektioetan, 2022rako eurogunearen hazkundera %3,1ean finkatu du oinarritzko egoeran, eta %0,9ra mugatu du 2023an aurrera egitea. Hala ere, egoera txarrean, ez du baztertzeko 2023an atzeraldi bat gertatzea, energiaren egoerak

**POLÍTICA ECONÓMICA Y PRESUPUESTARIA:
CONTEXTO Y ORIENTACIONES**

**1. Entorno económico en el que se contextualiza
el presupuesto 2023**

Los presupuestos para el año 2023 se enmarcan en un escenario de gran incertidumbre, provocada por las consecuencias de la guerra en Ucrania y la elevada inflación. Durante el segundo trimestre de este año, varios shocks han sacudido una economía mundial ya debilitada por la pandemia. Primero, una inflación superior a lo previsto en todo el mundo. En muchas economías, la inflación en la primera mitad de 2022 ha sido la más alta desde la década de los 80, sobre todo en Estados Unidos y las principales economías europeas, y ha provocado el endurecimiento de las condiciones financieras. Segundo, una desaceleración económica en China mayor de lo previsto, consecuencia de los brotes de la covid-19 y los confinamientos, así como de la debilidad de su mercado inmobiliario. Y tercero, la guerra en Ucrania, que está lastrando el crecimiento y ejerciendo una presión alcista adicional sobre los precios, sobre todo en el caso de los alimentos y la energía, y que está afectando a la confianza de las empresas y las familias.

Las favorables condiciones del mercado laboral, con tasas de desempleo en mínimos de 20 años en muchos países, están impulsando los salarios y ayudando a mitigar la pérdida de poder adquisitivo y de crecimiento. Sin embargo, esto también está contribuyendo a una inflación de base amplia. Además, se prevé que el efecto cada vez mayor del endurecimiento monetario por parte de la mayoría de los principales bancos centrales haga que la inflación alcance su punto máximo en el tercer trimestre de este año, si bien se espera que comience a disminuir en el cuarto y a lo largo de 2023 en la mayoría de los países. Aun así, la inflación anual en 2023 se mantendrá por encima de los objetivos de los bancos centrales en casi todos los países.

Así, la evolución económica parece abocada a un periodo de poco crecimiento económico y alta inflación, que será especialmente acusado en 2023. Esto ha llevado a los principales organismos oficiales de previsión a realizar importantes revisiones. Más en detalle, la OCDE, en su informe de septiembre, mantiene la actividad económica mundial de 2022 en el 3,0% y recorta en seis décimas, hasta el 2,2%, las previsiones de crecimiento para 2023.

Concretamente, la zona del euro crecerá en 2022 un 3,1%, cinco décimas más que lo anteriormente estimado, pero verá su ritmo mermado hasta el 0,3% en 2023. La escasez de combustible, especialmente de gas, puede reducir el crecimiento en la zona del euro en 1,3 puntos. A esto se le unen las subidas de los tipos de interés para controlar la crisis inflacionista, que ya están diluyendo la recuperación provocada por la reapertura económica tras lo peor de la pandemia. El BCE en sus proyecciones de septiembre también fija en su escenario base el crecimiento de la zona del euro para 2022 en el 3,1% y limita al 0,9% su avance en 2023. No obstante, no descarta, en el peor de sus escenarios, una posible recesión en 2023, si la situación

okerrera egiten badu eta Errusiak gas hornidura erabat mozten badu. Kasu horretan, eremuko BPG %2,8 haziko litzateke 2022an, eta -%0,9ra jaitsiko litzateke 2023an.

ELGAren azken aurreikuspenekin jarraituz, Alemania izango da kalte handiena jasango duena Errusiako gas horniduraren gabeziagatik, eta, aurreko BPGa %1,2ra mugatu ondoren, atzeraldian sartuko da datorren urtean, 2,4 puntuko beheranzko berrikuspena izan baitu. Euroguneko ekonomia nagusiaren BPG %0,7 jaitsiko da. Frantziak eta Italiak ere zortzi hamarren egin dute behera 2023ko aurreikuspenean, baina hazkunde tasa positiboak izaten jarraituko dute.

AEBek ere, Fedek hartutako neurriak gorabehera, sufritu egingo dute Moskuk hasitako gatazkagatik eta inflazio handiagatik. Hain zuzen ere, bertako ekonomia %1,5 soilik haziko da aurreko, duela hiru hilabete kalkulaturakoa baino puntu bat gutxiago, eta jarduera maila %0,5era jaitsiko du 2023an. Bestalde, ELGak Txinarentzat ekainean aurreikusten zuen %4,4ko hazkundea %3,2ra murriztu da berrikuspen berriaren ondoren, eta 2023an %4,7ra mugatuko du hazkundea.

BPGaren beheranzko berrikuspenarekin batera inflazioaren goranzko berrikuspena egin da. Eurogunean, inflazioa batez beste %8,1ekoa izango da 2022an (1,1 puntu gehiago) eta %6,2koa datorren urtean (1,6 puntu gehiago). Espainiaren kasuan, ELGak aurreikusi du aurreko %9,1era iritsiko dela, ekaineko aurreikuspena baino puntu bat gorago, eta 2023an, berriz, %5,0koa izango dela, hamarren bat gehiago. Hala ere, Europako herrialde kalteturik handiena Alemania da berriz ere. ELGAren arabera, euroguneko ekonomia nagusiaren prezioen igoera %7,5ekoa izango da datorren urtean, aurreko iragarpenaren aldean 2,8 puntu gehiago direlarik. Igoera handi horrek agertokirik ezkorrena irudikatzen du: inflazio iraunkorra, urte honetarako aurreikusitakoa (%8,4) baino apalagoa izango ez dena eta Europako Banku Zentrala moneta neurriak gogortzeko politikari luzarago eustera behartuko lukeena. Aitzitik, interes tasen gorakada bortitzei esker, prezioen zurrumbilao moteltzen hasiko da AEBetan. ELGak hamarren batean murriztu du munduko ekonomiarik handienarako inflazio aurreikuspena, %3,4ra arte 2023an, aurreko %6,2aren aldean.

Analisisa Espainiara begira jarrita, ELGak, bi urteetan murrizketak egin arren, uste du Espainiakoa izango dela Europako ekonomia handien artean gehien haziko dena 2022an eta 2023an. Zehazki, 2022rako %4,4ko hazkundea aurreikusten du, gobernuaren aurreikuspena hamarren batean gaindituz, eta 2023ko BPGa %1,5ean finkatuz.

Illo horretan, Ceperedeko aurreikuspenak aurkeztu dira. 2022rako aurrekoaren antzeko agertokia erakusten duten arren, 2023. urterako beheranzko joera hartu dute. Izan ere, Ceperederen arabera, Espainiako ekonomia %4,7 haziko da 2022an, hots, ekainean aurreikusitakoa baino bi hamarren gutxiago, eta %2,0ra (sei hamarren beherago) jaitsi du 2023rako aurreikusitako hazkunde erritmoa. Prezioen igoera handiak kontsumo pribatuaren bilakaera beherantz baldintzatuko du, urtearen amaieran portaera okertuko baitu eta hurrengo ekitaldiaren zati handi batean luzatuko baita okertze hori. Funcasek aurkeztutako iraileko aurreikuspenen panelak Ceperdek erakutsitakoaren antzeko emaitza eman du. Kasu horretan, BPG %4,2 haziko da 2022an, eta, ondoren, %1,9ra apalduko da 2023an.

energética empeora y Rusia corta del todo el suministro de gas. En este caso, el PIB del área crecería un 2,8% en 2022 y se contraería hasta el -0,9% en 2023.

Siguiendo con las últimas previsiones de la OCDE, Alemania será la gran perjudicada por la falta de suministro de gas ruso y, tras limitar su PIB este año al 1,2%, entrará en recesión el año que viene, al sufrir una revisión a la baja de 2,4 puntos. El PIB de la principal economía de la zona del euro caerá un 0,7%. Francia e Italia también experimentan un fuerte recorte de ocho décimas en 2023, pero seguirán registrando tasas de crecimiento positivas.

Estados Unidos, pese a las medidas tomadas por la Fed, también sufrirá por el conflicto iniciado por Moscú y por la alta inflación. En concreto, su economía sólo crecerá un 1,5% este año, un punto menos de lo que se calculaba hace solo tres meses, y recortará su nivel de actividad hasta el 0,5% en 2023. Por otro lado, el 4,4% que preveía en junio la OCDE para China se reduce al 3,2% tras la nueva revisión, y limita el crecimiento de 2023 al 4,7%.

La revisión a la baja del PIB va acompañada de una revisión al alza de la inflación. En la zona del euro, la inflación se situará en una media del 8,1% en 2022 (1,1 puntos más) y de un 6,2% el año que viene (1,6 puntos más). En el caso de España, la OCDE prevé que llegue a un 9,1% este año, un punto más que su previsión de junio, y que se sitúe en el 5,0% en 2023, una décima más. Sin embargo, el gran perjudicado de Europa vuelve a ser Alemania. Según la OCDE, el incremento de los precios de la principal economía de la zona euro se situará en el 7,5% el año que viene, 2,8 puntos más que el vaticinio anterior. Este fuerte incremento dibuja el peor de los escenarios: una inflación persistente, que apenas se moderará respecto a la prevista para este año (un 8,4%) y que podría obligar a BCE a mantener su política de endurecimiento monetario durante más tiempo. Por el contrario, las alzas más agresivas de tipos permitirán que la espiral de precios empiece a remitir en Estados Unidos. La OCDE recorta en una décima su previsión de inflación para la mayor economía del mundo, hasta el 3,4% en 2023, frente al 6,2% de este año.

Centrando el análisis en España, la OCDE, a pesar de los recortes hechos en ambos datos, estima que la española será la que más crecerá en 2022 y 2023 de entre las grandes economías europeas. En concreto, prevé un crecimiento del 4,4% para el año 2022, dato que supera en una décima la previsión del gobierno, y fija en el 1,5% el PIB de 2023.

En esta línea se presentan las previsiones de Ceperde, que, si bien muestran un escenario relativamente similar al anterior para el año 2022, se han visto corregidas a la baja para 2023. Así, según Ceperde, la economía española crecerá un 4,7% en 2022, dos décimas por debajo de lo previsto en junio, y reduce hasta el 2,0% (seis décimas por debajo) el ritmo de actividad previsto para 2023. El fuerte incremento de los precios condicionará a la baja al consumo privado, que empeorará su comportamiento en la parte final del año y se extenderá durante gran parte del próximo ejercicio. El Panel de previsiones de septiembre presentado por Funcas arroja un resultado similar al mostrado por Ceperde. En este caso, se estima que el PIB crecerá un 4,2% en 2022, para posteriormente reducirse hasta el 1,9% en 2023.

EGOERA MAKROEKONOMIKOA ESCENARIO MACROECONÓMICO	2021	2022	2023
BPG			
PIB	5,9	4,3	2,1
Azken kontsumoko gastua Gasto en consumo final	5,2	1,8	1,5
Etxeetako kontsumoko gastua Gasto consumo hogares	5,6	2,7	1,4
Administrazio publikoen kontsumoko gastua Gasto consumo AAPP	3,9	-1,4	1,7
Kapital-eraketa gordina Formación Bruta de Capital	6,0	4,8	2,9
Barne eskariaren ekarpena Aportación demanda interna	5,5	2,5	1,8
Kanpo saldoaren ekarpena Aportación saldo exterior	0,4	1,8	0,3
Lehen sektorea Sector primario	21,9	-4,6	-4,7
Industria eta energia Industria y energía	6,1	5,2	0,2
Eraikuntza Construcción	4,5	1,7	2,7
Zerbitzuak Servicios	5,8	4,7	2,9
Balio erantsi gordina Valor añadido bruto	5,9	4,6	2,2
Ekoizkinen gaineko zergak Impuestos sobre productos	6,1	2,8	1,6
BPGren deflatorea Deflactor PIB	2,5	4,2	3,0
Lanaldi osoko lanpostuak Puestos de trabajo a tiempo completo	5,9	2,7	1,2
Landunak (BJA) Personas ocupadas (PRA)	1,1	2,0	0,9
Langabezia tasa Tasa de paro	10,0	8,8	8,3

Ingurunean gertatzen ari diren aldaketen ondorioz, 2022-2023 aldirako EAEko ekonomiarako aurreikuspenen berrikuspena egin behar izan da. Berrikuspena bereziki garrantzitsua da datorren urterako, baina urte honetarako aldaketa hamarren pare batera mugatu da. Izan ere, aurtengo lehen hiru hiruhilekoak igaro ondoren eta 2022ko lehen erdiko kontu ekonomikoak ezagututa, inguruan izan diren aldaketek eragin erlatiboki txikiagoa dute aurtengo aurreikuspenetan. Aurrekoaz gain, 2022ari buruzko Consensus Forecastseko panelean parte hartzen dutenen iritzia ia ez dira aldatu azken hilabeteetan, bai euroguneko hazkundera dagokionez, bai Espainiakoari dagokionez. Horren ondorioz, EAEko ekonomiaren hazkundera aurtengo %4,3koa izatea espero da, hiruhilekoko moteltze txiki bat ezagutuko da urtearen amaierara arte.

Hala eta guztiz ere, 2023rako aurreikuspenek okerrera egin dute munduko ekonomiarentzat eta EAEko ekonomiaren ingurune hurbilarentzat ere. Lehen adierazi den bezala, ELGAK munduko ekonomiarako aurreikuspenari eutsi dio aurtengo ere, baina 2023koa sei hamarrenetan berrikusi du beherantz. Orain, munduko ekonomia %2,2 handituko dela aurreikusten du. Berrikuspena garrantzitsua da euroaren eremuarentzat ere. Horren ondorioz, datorren urterako aurreikusitako EAEko ekonomiaren hazkundera beherantzko bi puntutan berrikusi da, lehengo %4,1etik egungo %2,1era. Halaber, arriskuek beherantz seinalatzen dute. Bereziki, inflazioaren ondoriozkoa. Egoera makroekonomiko horretan, hipotesia da prezioak altu mantenduko direla aurtengo, baina datorren urtean zuzenketa esanguratsua lortuko dela eta BPGaren deflatoarea %2,5era hurbilduko dela urtearen azken zatian. Gertaeren ondorioz prezioen igoerak iraunkorrak badira, ekonomian eragindako kaltea handiagoa izango da, eta eragile ekonomikoek are gehiago murriztuko dituzte gastatzeko erabakiak.

Beraz, inflazioa da gaur eguneko gakoetako bat, eta horregatik da garrantzitsua BPG nominalaren bilakaera ere azaltzea, hau da, BPGa unean uneko eurotan kalkulata. Egungo agertokiak aurreikusten du BPG nominala %8,6 haziko dela aurtengo, 2021ean lortu zen ia tasa bera, eta %5,1, berriz, datorren urtean, hazkunde erreale txikiagoagatik eta prezioen bilakaeraren kontrol nabarmenagatik.

Eskariaren analisiak adierazten du kanpoko eskariak EAEko BPGaren hazkundera egiten dion ekarpen handia eta ezohikoa arindu egingo dela datozen hiruhilekoetan, inguruko ekonomiek izango duten bultzada txikiagoaren ondorioz, horiek baitira EAEko enpresen bezero nagusiak. Zentzu horretan, barne eskariak protagonismoa berreskuratuko du BPGaren osakeran. Kontsumo pribatuak hazkundera motelduko duela espero du, inflazio handiaren ondorioz erosteko ahalmena murriztuko delako eta eragile ekonomikoen artean baldin den ziurgabetasunagatik. Hala eta guztiz ere, enpleguaren hazkundeak agregatu makroekonomiko horren emaitza eremu positiboan mantentzen lagunduko du. Era berean, nazioarteko testuinguru zailak inbertsioko erabakiei eragingo die, nahiz eta hazkunde tasa nabarmenak aurreikusten diren kontuan hartutako aldi osorako.

Eskaintzaren ikuspegitik, industriak azken hiruhilekoetan izan dituen hazkunde erritmo sendoak alde batera utziko dituela aurreikusten da, eta ekonomiaren batez bestekotik

Los cambios que se suceden en el entorno obligan a realizar una revisión de las previsiones para la economía vasca en el periodo 2022-2023. La revisión es especialmente importante para el año próximo, mientras que para el presente se reduce a tan solo un par de décimas. Efectivamente, transcurridos ya los tres primeros trimestres del año y conocidas las cuentas económicas de la primera mitad de 2022, los cambios en el entorno tienen una incidencia relativamente menor en las previsiones para el presente año. Además, las opiniones de los participantes en el panel de Consensus Forecasts sobre 2022 apenas han variado en los últimos meses tanto en lo referente al crecimiento de la zona del euro como en el de España. A resultados de ello, ahora se espera que el crecimiento de la economía vasca este año se sitúe en el 4,3%, con un perfil trimestral de suave desaceleración hasta final del año.

Sin embargo, las expectativas para 2023 han empeorado para la economía mundial y para el entorno más cercano de la economía vasca. Como se ha señalado anteriormente, la OCDE ha mantenido su previsión para la economía mundial este año, pero ha revisado en seis décimas la correspondiente a 2023. Ahora prevé un incremento de la economía mundial del 2,2%. La revisión es importante también para la zona del euro. A consecuencia de ello, el crecimiento de la economía vasca previsto para el año próximo se revisa en dos puntos a la baja, desde el 4,1% hasta el 2,1% actual. Además, los riesgos son a la baja. En especial, el derivado de la inflación. En este escenario macroeconómico la hipótesis es que los precios se mantendrán altos este año, pero que en el próximo se conseguirá una corrección significativa y el deflactor del PIB se acercará al 2,5% en el tramo final del año. Si los acontecimientos hacen que las subidas de precios sean persistentes, el daño causado en la economía será mayor y los agentes económicos reducirán aún más sus decisiones de gasto.

La inflación es, en consecuencia, una de las claves del momento y por eso es importante explicar también la evolución del PIB nominal, es decir, el PIB en euros corrientes. El escenario actual prevé un incremento del PIB nominal del 8,6% este año, prácticamente el mismo que se registró en 2021, y una tasa del 5,1% para el año próximo, por un menor crecimiento real y por un control notable de la evolución de los precios.

El análisis de la demanda indica que la fuerte e inusual aportación de la demanda externa al incremento del PIB vasco se moderará en los próximos trimestres, a consecuencia del menor impulso que mostrarán las economías del entorno, que son los principales clientes de las empresas vascas. En ese sentido, la demanda interna recuperará protagonismo en la composición del PIB. Se espera que el consumo privado modere su crecimiento por la pérdida de poder adquisitivo que se deriva de la fuerte inflación y por la incertidumbre que se ha extendido entre los agentes económicos. No obstante, el crecimiento del empleo ayudará a mantener en positivo el resultado de ese agregado macroeconómico. De igual manera, el difícil contexto internacional afectará a las decisiones de inversión, aunque se anticipan tasas de incremento notables para todo el periodo considerado.

Desde la perspectiva de oferta, se prevé que la industria abandone los fuertes ritmos de crecimiento de los últimos trimestres y que se sitúe en tasas de variación inferiores a

beherako aldakuntza tasetan kokatuko da, datorren urteko bigarren erdian negatiboak izan daitezkeenak. Sektore honek Europako potentzia nagusiekin duen harreman estuak haien bilakaeraren mende jartzen du. Beste aldetik, zerbitzuek profil egonkorragoa izan ohi dute, merkaturatu ezin diren zerbitzuei gutxiago eragiten baitie une bakoitzeko koiunturak. Hala, aurtengo bigarren erdian apaltzeko fase bat izan ondoren, %2,9ko hazkundea espero da datorren urte osoan. Azkenik, 2023an eraikuntzarako gorakada bat aurreikusten da, sektoreak gaur egun bizi dituen trabak konponduz joango diren heinean.

Enpleguari dagokionez, egungo agertokiak langabezia tasaren murrizketa nabarmena aurreikusten du, aurtur batez beste %8,8ra iritsiko dena eta datorren urtean %8,3ra jaitsiko dena. Langabeziaren murrizketa hori oraindik ere garrantzitsua den enplegu sorreran oinarritzen da, baina moteltzeko joera argia hautematen da jadanik, koiunturako datuek aurreikusten duten bezala. Oro har, enpleguak gora egingo duela espero da, lanaldi osoko lanpostuetan neurtuta: %2,7 aurtur eta %1,2, berriz, datorren urtean. Tasa horien ondorioz, 26.000 lanpostu inguru sortuko dira aurtur, eta 12.000 inguru datorren urtean. Aldi baterako lan erregulazioko egoeran dauden pertsonen irteerak enplegu teorikoaren zifra horiek BJAtik ondorioztatzen direnen antzekoak izatea ekarriko du, azken horiek pertsonetan oinarritzen baitira. Aurreikuspen berriaren arabera, aurtur enplegua duten pertsonen kopurua %2,0 handituko da, eta datorren urtean %0,9 (19.000 eta 9.000 inguru).

Moneta politikaren aldaketa EAEko ekonomiarako aurreikuspenetan Euriborraren bidez sartzen da. Euriborra datozen hilabeteetan handituko dela espero da, baina 2023an egonkortu egingo da. Truke tasari dagokionez, printzipioz, euroaren eta dolarren arteko parekotasunari eustearen alde egiten da, nahiz eta, batez ere, datorren urteko bigarren erdian Europako moneta indartu egingo den.

2. Aurrekontuaren testuingurua: aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna

Estatuko Administrazio Orokorrak eta Euskal Autonomia Erkidegoak 2023rako adostutako aurrekontu-egonkortasuneko eta zor publikoko helburuek Europako Batzordeak 2023rako babes-klausula orokorra mantentzeari buruz egindako proposamenean dute oinarria. Horren arabera, aldi horretarako arau fiskalak etetea babesten da.

Testuinguru horretan, aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuari buruzko aldez aurreko akordioa hartu zen. Bi helburu horiek Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak berretsiko ditu, eta erreferentziazko tasatzat hartu behar dira aipatutako zerga-arauak eteteko egoeran.

Euskadiko BPGren ehunekoan neurtutako aurrekontu-egonkortasunaren helburua -%0,6 da. Zorriari dagokionez, 2023rako helburua BPGren % 13,5ean adostu da.

3. 2023ko ekonomia eta aurrekontu politikako orientabideak

Covid-19ak eragindako munduko atzeraldi ekonomikoa

la media de la economía, que podrían ser negativas durante la segunda mitad del año próximo. La estrecha relación de este sector con las principales potencias europeas supedita su evolución a la de aquellas. Por su parte, los servicios suelen mostrar un perfil más estable, ya que los servicios no comercializables se ven menos afectados por la coyuntura del momento. Así, tras una fase de moderación durante la segunda mitad del año, se espera un incremento del orden del 2,9% durante todo el año próximo. Por último, para la construcción se prevé un repunte en el año 2023, una vez que las trabas que vive actualmente el sector se vayan solucionando.

En materia de empleo, el escenario actual anticipa una significativa reducción de la tasa de paro, que llegará al 8,8% de media este año y que bajará al 8,3% el próximo. Esta reducción del desempleo se fundamenta en una creación de empleo todavía importante, aunque en clara desaceleración, como anticipan los datos coyunturales. En conjunto, se espera un crecimiento del empleo, medido en puestos de trabajo a tiempo completo, del 2,7% este año y del 1,2% el próximo. Estas tasas se traducen en una creación de unos 26.000 puestos de trabajo este año y de unos 12.000 el próximo. La salida de las personas en situación de ERTE favorecerá que esas cifras de empleo teórico sean similares a las que se deducen de la PRA, que se basan en personas. Así, la nueva previsión apunta a un incremento del 2,0% en el número de personas con empleo este año y del 0,9% el próximo (19.000 y 9.000 aproximadamente).

El cambio de la política monetaria se introduce en las previsiones para la economía vasca a través del Euribor, que se espera que aumente durante los próximos meses, aunque se estabilizará a lo largo de 2023. Sobre el tipo de cambio, en principio se apuesta por el mantenimiento de la paridad entre el euro y el dólar, aunque especialmente en la segunda mitad del año próximo se anticipa un fortalecimiento de la moneda europea.

2. Contexto presupuestario: estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera

Los objetivos de estabilidad presupuestaria y deuda pública acordados entre la Administración General del Estado y la Comunidad Autónoma del País Vasco para 2023 tienen su base en la propuesta de la Comisión Europea sobre el mantenimiento de la cláusula general de salvaguarda para 2023 por la que se preserva la suspensión de las reglas fiscales para dicho periodo.

En este contexto, se adoptó el acuerdo previo sobre objetivo de estabilidad presupuestaria y de deuda pública. Ambos objetivos, que serán ratificados por la Comisión Mixta del Concierto Económico, deben entenderse como tasas de referencia en la coyuntura de suspensión de reglas fiscales mencionada.

El objetivo de estabilidad presupuestaria medido en porcentaje del PIB de Euskadi ha quedado fijado en el -0,6%. Respecto a la deuda, el objetivo para 2023 ha sido acordado en el 13,5 % del PIB.

3. Orientaciones de la política económica y presupuestaria en 2023

La recesión económica a nivel mundial ocasionada por el

izugarri handia izan da. Hasiera batean suspertze-prozesuari pandemiaren ondoz ondoko olatuek eragin zioten, eta 2021. urtearen erdialdetik aurrera gasaren eta elektrizitatearen prezioen gorakadak eta hornidura-kate globaletan itoguneak areagotzeak susperraldi ekonomikoa moteldu zuten. Arrisku eta faktore exogeno horiek gorabehera, EAEko ekonomiak susperraldi handia izan zuen 2021eko bigarren erdian, eta pandemiaren aurreko egoerara itzultzeko lau puntura jarri zen.

Une honetan, euskal ekonomiak, munduko ekonomia osoak bezala, ziurgabetasun handiko egoera bizi du. Aurtengo bigarren hiruhilekoan, hainbat shockek astindu dute mundu osoko ekonomia, pandemiaren ondorioz oraindik ere herrenka dabilena: lehenik eta behin, mundu osoan aurreikusitakoa baino inflazio handiagoa izan da, eta horrek diru-politika gogortu du (izan ere, Estatu Batuetako Erreserba Federalak bost aldiz igo ditu interes-tasak aurren, eta Europako Banku Zentralak ere igo du diruaren prezioa uztailen eta irailean, eta bi erakundeek igoera berriak izango direla aurreikusi dute); bigarrenik, Txinan aurreikusitakoa baino moteltze handiagoa; eta, hirugarrenik, Errusiak Ukraina inbaditzea.

Inflazioaren gorakadaren arrazoiak askotarikoak dira eta eskaintza- eta eskari-faktoreak konbinatzen dituzte. Faktore horien artean daude lehengaien prezio altuak, botila-lepoak ondasun jakin batzuen ekoizpenean eta tenkatzeak itsas garraioan. Gainera, pandemiari lotutako osasun-murritzetak kentzeak zerbitzuen eskariaren zati bat askatu du, eta, horren ondorioz, aisiaren, jatetxeen eta turismoaren prezioak bizkortu egin dira. Eta ohitura-aldaketek, hala nola telelanaren gorakadak, etxeko ekipamenduaren gastua handitzea ekarri dute, eta horrek presio gehigarria eragin du etxeko prezioen gainean.

Inflazioaren gorakada globala, oso esanguratsua eta iraunkorra izan da, osagai energetikoaren papera nabarmenduz. Adar eta enpresen arteko heterogeneotasun handiarekin, soldatapeko bakoitzeko ordainsaria inflazioaren azpitik hazi da. Ondorioz, familien erosteko ahalmenaren galera oso esanguratsua da.

Ukrainako gerraren garapenak eta horrek energia-merkatuetan duen eraginak aurreikuspen ekonomikoak baldintzatzen ditu neurri handi batean. Europa bereziki arriskuan dago Errusiak Ukraina inbaditzearen ondorio ekonomikoetarako, bere gertutasun geografikoagatik, Errusiarekin dituen harreman komertzial eta finantzario estuengatik eta, bereziki, Errusiatik egiten diren erregai fosilen inportazioekiko menpekotasun handiagatik, epe laburrean ordezkatzeko ahalmena mugatua delarik.

Nahiz eta gatazkaren ondorio ekonomikoek modu desberdinean eragiten dieten herrialdeei, Errusiako gasarekiko mendekotasun desberdinaren arabera, energia-prezioen igoera eta Europako herrialdeen integrazio ekonomikoa direla eta, Errusiako hornidurarekiko mendekotasun erlatiboki txikia duten ekonomiek ere izango dute eragina.

Arrazoi horiengatik, epe ertainerako hazkundearen aurreikuspen ekonomikoak beherantz berrikusi dira herrialde guztietan, eta Euskadi ez da salbuespena izan. 2022an, EAEko BPGaren hazkunde zenbatetsia % 4,3koa da, eta horrek pandemiaren aurreko mailak berreskuratzea

covid-19 ha sido de una intensidad inaudita. El proceso de recuperación se vio afectado en un primer momento por el impacto de las sucesivas olas de la pandemia y a partir de mediados de 2021 por el alza de los precios del gas y de la electricidad, así como por la intensificación de cuellos de botella en las cadenas globales de suministro que ralentizaron la recuperación económica. A pesar de estos riesgos y factores exógenos, la economía vasca se mantuvo en una senda de fuerte recuperación durante la segunda mitad del 2021, colocándose a cuatro puntos de volver a la situación previa a la pandemia.

En estos momentos, la economía vasca, al igual que el conjunto de la economía mundial, vive una situación de gran incertidumbre. Durante el segundo trimestre de este año varios shocks han sacudido una economía mundial todavía renqueante como consecuencia de la pandemia: primero, una inflación superior a lo previsto en todo el mundo que ha provocado el endurecimiento de la política monetaria (de hecho, la Reserva Federal de Estados Unidos ha elevado los tipos de interés cinco veces en lo que va de año y el Banco Central Europeo también ha incrementado el precio del dinero en los meses de julio y septiembre, y ambas instituciones prevén que habrá nuevas subidas); segundo, una desaceleración mayor de lo previsto en China; y tercero, la invasión rusa a Ucrania.

Las razones del repunte de la inflación son diversas y combinan factores de oferta y demanda. Estos factores incluyen los altos precios de las materias primas, los cuellos de botella en la producción de determinados bienes y los tensionamientos en el transporte marítimo. Además, la eliminación de las restricciones sanitarias asociadas a la pandemia ha liberado parte de la demanda de los servicios y, como consecuencia, en una aceleración de los precios del ocio, la restauración y el turismo. Y los cambios de hábitos, como el aumento del teletrabajo, han determinado un incremento del gasto en equipamiento del hogar, lo que ha ejercido una presión adicional sobre sus precios.

El repunte de la inflación ha sido global, muy significativo y persistente, destacando el papel del componente energético. Con una gran heterogeneidad entre ramas y empresas, la remuneración por asalariado ha crecido por debajo de la inflación. Como resultado, la pérdida de poder adquisitivo de los hogares es muy significativa.

El desarrollo de la guerra de Ucrania y su impacto en los mercados energéticos condiciona en gran medida las perspectivas económicas. Europa está particularmente expuesta a los efectos económicos de la invasión rusa de Ucrania, dada su cercanía geográfica, sus estrechos lazos comerciales y financieros con Rusia y, especialmente, por la elevada dependencia de las importaciones de combustibles fósiles desde Rusia, siendo limitada la capacidad para su sustitución a corto plazo.

A pesar de que las consecuencias económicas del conflicto afectan de forma desigual a los países en función de su distinta dependencia del gas ruso, dado el incremento de precios energéticos y la integración económica de los países europeos, también se verán afectadas aquellas economías con una dependencia relativamente baja del suministro ruso.

Por estos motivos, las perspectivas económicas de crecimiento a medio plazo se han revisado a la baja en todos los países y Euskadi no ha sido una excepción. El crecimiento estimado del PIB vasco en 2022 es del 4,3%, lo que permitiría la recuperación de los niveles previos a la

ahalbidetuko luke; 2023rako, berriz, % 2,1eko hazkundera aurreikusten da, inflazioak hurrengo hilabeteetan bilakaera positiboa izango duela dioen hipotesiaren arabera landutako egoera.

Nolanahi ere, jarduerak euskarri jakin batzuen laguntza izaten jarraituko du, hala nola egoera epidemiologikoa hobetzea eta Next Generation EU funtsak erabiltzea. 2023an lhesbideari buruzko Klausula Orokorra aplikatzeak eta gastu arrunta arrazionalizatzeko eta eusteko ahalegin gehigarriak beharrezko zerga-marjina eman beharko liguke aurrekontu bat egiteko, politika eta zerbitzu publikoak artikulatzeko aukera emateaz gain, honako hauei erantzuteko: (1) biztanleria eta sektore ekonomiko ahulei behar bezala ardaztutako laguntza emateko beharrari, batez ere energia eta elikagaiak garestiak direlako, eta (2) energia-eraldaketa ekologikoari eta digitalizazioari aurre egiteko behar diren inbertsioei bultzada berritua eskaintzeko beharrari

Inbertsioa. Martxan dagoen apustua

Aipatutako faktoreek eta ziurgabetasunek eragindako suspertze-erritmoaren moteltzea, azkenik, politika ekonomikoen erantzunaren araberakoa izango da, politika horiek zeregin erabakigarria izango baitute. Pandemia bezala, Ukrainaren inbasioa asaldura oso negatiboa da, exogenoa eta Europar Batasun osorako komuna, eta erantzunik onena Europa mailako ekintza bat da.

Covid-19aren eraginak 2020an, 2021ean eta 2022an arau fiskalak bertan behera uztea ekarri zuen, Europako Batzordeak, krisi energetikoa sartu eta Ukrainan gerra piztu baino lehen, 2023an berraktibatzea erabaki baitzuen. Hala ere, aurtengo maiatzean, Europako Batzordeak beste etete bat proposatu du 2023ko amaierara arte.

Europarekin bat etorritik, Espainiak 2020, 2021, 2022 eta 2023rako aurrekontu-egonkortasunaren, gastu-arauaren eta zor publikoaren helburuak eten egin zituen. Testuinguru horretan, Estatuarekin defizitaren eta zorraren helburu berriak adostu ziren eta Kontzer- tuaren Batzorde Mistoan sinatu ziren 2020ko irailean. Horren arabera, 2020an defizitaren erreferentzia-tasa BPGaren % 2,6 izango litzateke, eta 2021ean % 2,2; Eusko Jaurilaritzaren zorpetze-ahalmena, berriz, BPGaren % 16,3 izango litzateke 2020an, eta %16,9 2021ean. Ondoren, 2021eko uztaillean, 2022ko erreferentzia-tasak adostu ziren: defizitarena % 0,9 eta zorrarena % 15,6. Erreferentzia horiei esker, aurrekontuan krisi- aren ondoriozko erronkei erantzuteko tarte handiagoa dago.

Halaber, 2020ko uztaillean, Europar Batasuneko liderrek akordio historikoa lortu zuten Next Generation EU izeneko finantzaketarako tresna komunitarioen paketearen bitartez bideratutako suspertze-plan bat onartzearekin. Plan horrek 750.000 milioi euroko zuzkidura du, eta Espainiak horietatik 140.000 milioi jasoko ditu, 70.000 milioi diru-laguntzetan eta beste 70.000 milioi euro mailleguen bidez. Bere pieza nagusia Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (SEM-MRR) da. Mekanismo horren helburua epe laburrean pandemiaren inpaktuari aurre egiteko jarduera eta enplegua sortzea, epe ertainean hazkunde potentziala handitzea eta epe luzean, garapen jasangarriago eta inklusiboagorantz aurrera eginez, erresilientzia indartzea

pandemia, y para 2023 se anticipa un crecimiento del 2,1%, un escenario elaborado bajo la hipótesis de una evolución favorable de la inflación durante los próximos meses.

En todo caso, la actividad seguirá viéndose apoyada por soportes como la previsible mejora de la situación epidemiológica y el uso de los fondos Next Generation EU. La aplicación de la Cláusula General de Escape en 2023 y un esfuerzo adicional en la racionalización y contención del gasto corriente debería darnos el margen fiscal necesario para elaborar un presupuesto que, además de permitir articular las políticas y servicios públicos, dé respuesta a: (1) la necesidad de proporcionar apoyo debidamente focalizado a las poblaciones y sectores económicos vulnerables, sobre todo dada la carestía de la energía y los alimentos, y (2) ofrecer un impulso renovado a las inversiones necesarias para afrontar la transformación energético-ecológica y la digitalización.

La inversión. Una apuesta en marcha

La magnitud de la ralentización del ritmo de recuperación causada por los factores e incertidumbres mencionados dependerá también, en último término, de la respuesta de las políticas económicas, que están llamadas a desempeñar un papel crucial. Al igual que la pandemia, la invasión de Ucrania es una perturbación muy negativa de carácter exógeno y común al conjunto de la Unión Europea, y la respuesta óptima es una acción a escala europea.

El impacto de la Covid-19 llevó a la suspensión de las reglas fiscales en 2020, 2021 y 2022 a nivel comunitario, habiendo considerado la Comisión Europea, de manera previa a la irrupción de la crisis energética y al estallido de la guerra en Ucrania, su posible reactivación en 2023. Sin embargo, en mayo de este año la Comisión Europea ha propuesto una nueva suspensión hasta finales de 2023.

En línea con Europa, España procedió a la suspensión de los objetivos de estabilidad presupuestaria, regla de gasto y de deuda pública para 2020, 2021, 2022 y también para 2023. En este contexto, se acordaron con el Estado nuevos objetivos de déficit y deuda que fueron rubricados en la Comisión Mixta del Concierto Económico en septiembre de 2020, por el que la tasa de referencia del déficit en 2020 sería del 2,6% del PIB y del 2,2% en 2021, mientras que la capacidad de endeudamiento del Gobierno Vasco sería del 16,3% del PIB en 2020 y del 16,9% en 2021. Posteriormente, en julio de 2021 se acordaron las tasas de referencia para 2022: la del déficit el 0,9% y la de deuda el 15,6%. Estas referencias han permitido un mayor margen de actuación presupuestaria en su respuesta a los retos derivados de la crisis.

Además, en julio de 2020 los líderes de la Unión Europea alcanzaron un acuerdo histórico con la aprobación de un plan de recuperación encauzado a través del paquete de instrumentos comunitarios de financiación denominado Next Generation EU, dotado con 750.000 millones de euros, de los que España recibirá 140.000 millones, 70.000 millones en subvenciones y otros 70.000 millones de euros mediante préstamos. Su pieza central la constituye el Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (MRR) cuyo objetivo es impulsar la actividad y la creación de empleo para contrarrestar a corto plazo el impacto de la pandemia, apoyar un proceso de transformación estructural que permita aumentar a medio plazo el crecimiento potencial y

ahalbidetuko duen egiturazko eraldaketa-prozesua bultzatzea da.

Europako programa horren esparruan, Espainiako Gobernuak 2021eko apirilaren amaieran Europako funtsak bideratzeko tresna den Susperraldi, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana (SEEP-PRTR) aurkeztu zuen. SEEP-PRTR planak erreformak eta inbertsioak aurkeztu ditu lau eraldaketa-ardatzen inguruan: trantsizio ekologikoa, eraldaketa digitala, gizarte- eta lurralde-kohesioa eta genero-berdintasuna. Era berean, Eusko Jurlaritzak, hiru foru-aldundiekin eta EAEko hiru hiriburuetakoa udalekin koordinatuta, Euskadi Next programa landu zuen. Euskadi suspertzeko, eraldatzeko eta erresilientziarako inbertsio-programa hau Eusko Jurlaritzak Espainiako Gobernuari helarazi zion SEEP-PRTR programan sartzeko eta SEM-MRR mekanismoaren finantzaketa lortzeko.

Zerga-arauen eteteak eskaintako aukerarekin batera, aurreikuspenetatik gora handitu zen zerga-bilketa eta, horri esker, Eusko Jurlaritzak inbertsio publikoaren aldeko apustua areagotu zuen 2021eko ekitaldian. Horrenbestez, aurrekontuetan jasotako 1.000 milioi euro baino gehiagorekin batera, aparteko bi neurri onartu ziren:

- 2021eko maiatzean 180 milioi euroko ezohiko funtsa onartu zen, Enkarterri, Ezkerraldea, Meatzaldea, Oarsoaldea eta Aiaraldeko Lehentasunezko Ekintza Eremuetan 25 proiektu eragile bultzatzeko. Horietatik 35 milioi 2023an gauzatzea espero da.
- Inbertsioen Aparteko Plana, 250 milioi eurokoa; horietatik 170 urte horretan bertan gauzatuko dira, 55 milioi 2022an eta 24 milioi 2023an.

Inbertsio publikoaren aldeko apustua ere argi geratu zen 2022ko aurrekontuetan, inbertsioa % 47 handitu baitzen 2021eko aurrekontuekin alderatuta, eta guztira 1.571 milioi eurora iritsi zen. Gainera, 2022ko martxoan, "Euskadiko Inbertsio Estrategikoen 2022-2024 Plana" jarri zen abian. Neurri osagarria da, Eusko Jurlaritzaren eta Foru Aldundien eskumenekoak diren proiektu eragileak bultzatzea helburu duena. Plan honek inbertsioaren aldeko apustuan sakontzen du, EAEko ekonomia suspertu eta eraldatzeko palanka gisa, eta 530 milioi euro inguruko baliabideak aktibatzea dakar.

Inbertsio estrategikoen plan hau SEEP-PRTR programaren hogeita hamar osagaiekin lotuta dago, ez ditu jasotzen Euskadi Next Programako inbertsio estrategiko guztiak, baina bai proiektuen lagin adierazgarria. Hauek nabarmentzen dira: izaera eraldatzailea, espezializazio adimendunaren estrategiarekin lerrokatzea, 2030eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana (ZTBP 2030), erakundeen arteko lankidetzak eta arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak; horiek guztiak bermatzen dute erakunde bideragarritasuna eta egingarritasuna.

Bestalde, 2021. urteaz geroztik, SEEP-PRTR programan integratutako proiektuetarako SEM-MRR mekanismoaren funtsak iristen ari dira Jurlaritzara; orain arte, 2022ko iraila, 950 milioi euro inguru esleitu dira konferentzia sektorialen eta esleipen zuzenen bidez. Europako baliabide horiek Estatu kideen bidez bideratzen dira, eta Eusko

reforzar a largo plazo la resiliencia, avanzando hacia un desarrollo más sostenible e inclusivo.

En el marco de este programa europeo, el Gobierno español presentó a finales de abril de 2021 el Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (PRTR), el instrumento para canalizar los fondos europeos. El PRTR presenta un conjunto de reformas e inversiones en torno a cuatro ejes transversales de transformación: transición ecológica, transformación digital, cohesión social y territorial e igualdad de género. A su vez, el Gobierno Vasco elaboró el Programa Euskadi Next, programa de inversiones para la recuperación, la transformación y la resiliencia de Euskadi que el Gobierno Vasco, en coordinación con las tres Diputaciones Forales y los ayuntamientos de las tres capitales vascas, trasladó al Gobierno de España para ser incluido en el PRTR y acceder así a financiación del MRR.

El aumento de la recaudación por encima de las previsiones junto a la ventana de oportunidad ofrecida por la suspensión de las reglas fiscales permitió al Gobierno Vasco ya en el ejercicio 2021 redoblar su apuesta por la inversión pública, de manera que junto a los más de 1.000 millones de euros recogidos en los presupuestos se aprobaron dos medidas extraordinarias:

- El fondo extraordinario aprobado en mayo de 2021 de 180 millones de euros para impulsar 25 proyectos tractores en las Zonas de Actuación Preferente de Enkarterri, Ezkerraldea, Meatzaldea, Oarsoaldea y Aiaraldea y de los que 35 millones se espera ejecutar en 2023.
- El Plan Extraordinario de Inversiones con un importe de 250 millones euros, de los que 170 se ejecutarían ese mismo año, 55 millones en 2022 y 24 millones en 2023.

La apuesta por la inversión pública quedó clara también en los presupuestos de 2022, con un incremento de la inversión del 47% con respecto a los presupuestos de 2021, alcanzando una cifra total de 1.571 millones de euros. Además, en marzo de 2022, se puso en marcha el "Plan de Inversiones Estratégicas de Euskadi 2022-2024", una medida complementaria cuyo objetivo es el impulso de proyectos tractores cuya ejecución compete tanto al Gobierno Vasco como a las Diputaciones Forales. Este plan ahonda en la apuesta por la inversión como palanca para la recuperación y la transformación de la economía vasca y supone activar recursos que se acercan a los 530 millones de euros.

Este plan de inversiones estratégicas se relaciona con los treinta componentes del PRTR, no recoge todas las inversiones estratégicas del Programa Euskadi Next, pero sí una muestra representativa de proyectos en los que destaca su carácter transformador, el alineamiento con la estrategia de especialización inteligente, el Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación 2030 (PCTI 2030), la colaboración interinstitucional y la colaboración público privada, mimbres todos ellos que garantizan la viabilidad y la factibilidad de las mismas.

Por otra parte, ya desde el año 2021 están llegando al Gobierno fondos del MRR para los proyectos integrados en el PRTR; hasta la fecha, septiembre de 2022, alrededor de 950 millones de euros han sido asignados a través de conferencias sectoriales y adjudicaciones directas. Son recursos europeos canalizados a través de los Estados

Jaurilaritzak bere gain hartzen ditu kudeaketa-, jarraipen- eta kontrol-faseak, baina ez du parte hartzen funtsen xede ona bermatuko luketen inbertsio-lerroen diseinuan.

Testuinguru ekonomiko horrek mugatzen du EAEko Administrazio Orokorren 2023rako aurrekontuak egiteko esparrua.

2023ko aurrekontuak pandemiak eragindako krisitik suspertzeko ibilbidean sankontzeko, Ukrainaren errusiar inbasioaren ondorioak arintzeko eta, aldi berean, EAEko ekonomia eraldatzeko eta modernizatzeko prozesua bultzatzeko helburuan kokatzen dira, ekonomia hori sendoago, inklusiboago eta erresilienteagoa izan dadin. Hori guztia Eusko Jaurilaritzak aurrekontu-egonkortasunarekin duen konpromisoarekin lotzen da.

Aurrekontu-politikak susperraldiaren alde egiten jarraitu behar du, kasu askotan pandemiaren ondorio kaltegarrietatik oraindik guztiz suspertu ez diren familia, enpresa eta sektore kalteberenei lagunduz. Une honetan, gainera, jardun publikoak dagoeneko ezagunak diren faktore desorekatzaile horiei inflazioaren inpaktua gehitu behar zaie, batez ere errenta baxueneko etxeko enitateei eta energian intentsiboak diren enpresei eragiten diena.

